

I. eranskina

Osasun Sailaren diru-laguntzen plan estrategikoa. 2021erako eduki orokorra.

1.- Sarrera.

Osasuna euskal herritarren ondasun eta balio preziatuenetariko bat da, eta haren babesa eskubide unibertuala. Eusko Jaurlaritzaren lehentasunetariko bat da, horrenbestez, osasun-politikei eta osasun-sistemari eustea.

Egia da euskal gizarteak herrialde garatu bati dagozkion emaitzak dituela osasun-arloan, behar sanitarioei egokiro erantzuten baitzaie. Hori horrela da, dudarik gabe, euskal gizartearen garapen-mailaren ondorioz, baina sistema sanitarioak bere ibilbidean zehar kalitatearen, modernizazioaren eta berrikuntzaren alde egindako ahaleginaren ondorioa ere bada. Horrela lortu dugu euskal herritarrek preziatzen eta erreferentetzat jotzen duten osasun publikoko eredu bat.

Gatozen, orain, Osasun Sailaren 2021-2024rako Esparru Estrategikora. Asmoa garbia da: desberdintasunik gabeko osasuna lortzea, hurbilagoa, gure politika guztietan presente dagoena eta hartara lagungarri izango dena ongizate eta bizi-kalitate hobea erdiesten gutako bakoitzarentzat eta euskal gizarte guztirako.

Osasuna hobetzeko helburuaren baitan sartzen da, orobat, osasun-zerbitzuez ikertzea eta osasun-alorrean egiten diren esku-hartzeen eraginkortasuna ebaluatzea, eta interes sozial eta sanitario handia duten gaixotasunak ez ezik, askotariko morbiditateak eta prozesu kronikoek sorrarazitako gaixotasun-karga, ere hartzen ditu aintzat.

Euskadiko Osasun Antolamenduaren Legearen (ekainaren 26ko 8/1997 Legea) 13.1. artikulua dionez, "Euskadiko Osasun Plana sistema planifikatzeko eta programatzeko lanabes nagusia da; izan ere, plan horren bidez politika sanitarioko osasunari buruzko oinarritzko helburuak ezarriko dira, eta, era berean, haren bidez zehaztuko dira plana indarrean dagoen bitartean egongo diren baliabideekin atenditu beharreko lehentasunak". Gaur egun indarrean den plana, "Osasuna: Pertsonen eskubidea, guztion ardura", Eusko Legebiltzarrak 2014ko apirilaren 4an onartu zuen. 2020ra arte zen indarrean egotekoa, baina ordezkiko plan berria onartzen den arte izango da gure artean.

Planean landutako bost arloetatik bi zeharkakoak dira, eta beste hiru pertsona-talde jakin batzuei buruzkoak. Hona zeharkako arloak: ekitatea eta erantzukizuna, eta ingurune eta jokabide osasungarriak. Hartzaileak, berriz, 2013-2020 Osasun Planak hiru talde ditu berariazko hartzaile: gaixotasunen bat duten pertsonak; edadetuak; eta umeak eta gazteak.

Bestalde, 2017-2020 bitarterako Euskadiko laguntza soziosanitariorako lerro estrategikoen helburu estrategikoetariko bat da, hain zuzen, jomuga-kolektiboei zuzendutako zerbitzu soziosanitarioak garatzea, kolektibo horiek presenteagoak izango baitira laguntza soziosanitarioko aurreikuspenetan, haien zirkunstantziak direla-eta (indibidualak edo sistemakoak; sozialak edo sanitarioak). Kolektibo horietariko batzuen ezaugarri bat da zailtasun zehatz eta desberdintasunaren sortzaileak izatea. Hala, bada, esku-hartze trinkoak beharko dituzte haien premiei erantzuten dieten baliabideak eta prozedurak garatzeko, berriz ere gizartea osatzen duten gainerako kolektiboekiko ekitate-egoeran jartze aldera.

Lau alor handi hauek dira Osasun Sailak ematen dituen diru-laguntzen helmugak:

- Osasuna sustatzea eta gaixotasunak prebenitzea.
- Adikzioak prebenitzea eta artatzea, eta arriskuak eta kalteak gutxitzea.
- Ikerketa eta berrikuntza
- Profesionalak

1.1.- Osasuna sustatzea eta gaixotasunak prebenitzea

Ilido horretan, Euskadiko Osasun Antolamenduari buruzko (ekainaren 26ko 8/1997) Legearen 2. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, EAEko botere publikoei dagokie osasuna sustatu eta indartzea jarduera sozioekonomikoan diharduten sektore guztietan, helburu hauek lortzeko: bizi-ohitura osasungarriak suspertzea, arrisku-faktoreak desagerraraztea, ondorio txarrak saihestea eta, batik bat, osasunaren garrantziaz jabetu eta kontzientziaztea. Halaber, aipatutako legearen 3. artikulua adierazten du osasunaren alorreko euskal administrazioari dagokiola osasun publikoaren babes orokorra bermatzea, osasuna sustatzeko neurrien bidez.

Horrela, Eusko Jaurlaritzaren aburuz, lehentasunezkoa da herritarren erantzukizuna ere eragile aktibo gisa, osasuna zaintzeko garaian, ahal dela, gaixotasuna ezagutuz, prebenituz eta kudeatzen lagunduz, gizarteak osasun hobea eta bizi kalitate hobea izan dezan.

Osasunaren kultura landu behar da, osasuna sustatuz eta gaixotasunak prebenituz bereziki, konbentzituta osasuna pertsona guztien eta Euskadiko botere publiko guztien konpromisoa dela eta izan behar dela. Gurea bezalako gizarte aurreratu batean bereziki, zeinak azken hamarkadetan pertsonen osasunean eragin zuzena izan duten gizarte eta kultura aldaketa garrantzitsuak bizi baititu. Gehiago eta hobeto bizi gara, egia da, baina aldi berean badakigu bizitzeko modu ez oso osasungarriak zabaldu direla elikadurari, jarduera fisikoari eta mendekotasunak sor ditzaketen substantzien kontsumoari dagokionez. Horregatik guztiagatik beharrezkotzat jotzen dugu bereziki azpimarratzea osasuna sustatu behar dela, bizi-modu eta balio eta ohitura osasungarriari dagokienez, dietari, ariketa fisikoari eta elikadurari erreparatuz, besteak beste.

Aldi berean, garrantzitsua da transmisio sexualeko infekzioak eta HIES prebenitzeko lanean jarraitzea, gairekin zerikusia duten eragile sozialekin lankidetzan.

1.2.- Adikzioak prebenitzea eta artatzea, eta arriskuak eta kalteak gutxitzea.

Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legeak, adikzioak ikuspuntu integral eta diziplina anitzeko batetik aztertuta, printzipio nagusitzat dauka osasun-kultura bat bultzatzea, bizi-ohitura osasungarriak sustatuko dituen eta gizarteak adikzioen aurrean duen jarrera eta jokabidea aldatuko duena. Lege horren helburu nagusia da drogak eta adikzioak sor ditzaketen bestelako substantziak kontsumitzeagatik eta jokabide-adikzioengatik arazoak dituzten pertsonen osasuna eta bizi-kalitatea hobetzea, eta, bereziki defendatzen ditu adingabeak eta gizarte-kolektibo kalteberenak.

Legean lehentasunezkoa da eremu komunitarioan ematen den prebentzioa, eta batez ere adikzioei buruzko tokiko edo foru-planak dituzten udalerrietan eta mankomunitateen garatzen da, haiei baitagokie egitea, garatzea eta betearaztea. Adikzioen prebentzio komunitarioako talde teknikoek bitartez garatzen dituzte toki-erakunde horiek euren eskumenak. Osasun Sailaren finantza-laguntza daukate talde horietako profesionalei trebakuntza egokia emateko, adikzioen prebentzio komunitarioari lotutako politika eraginkortasunez gauza dezaten, hain zuzen.

Horrez gain, legeak aitortzen du irabazteko asmorik gabeko erakunde pribatuek duten garrantzi handia, eta azaltzen ditu gai horri buruz egiten dituzten proiektuei diru-laguntzak emateko bete beharreko baldintzak.

Jarduera guztiok gorago aipatutako plangintza tresna nagusien zehaztasunak dira, zeintzuek Osasun Sailaren estrategia definitzen baitute. Tresna horiei 2017-2021 epealdiko Euskal Autonomia Erkidegoko Adikzioen VII. Plana gehitu zitzaion. Osasun Planari lotuta dago eta Gobernu Kontseiluak onetsi zuen 2017ko uztailaren 4an, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen Arreta Integralari buruzko Legeak arautzen duena betez. Plan hori, "*Arriskuei aurre eginez, Osasuna eraikiz*" goiburuararekin, tresna estrategikoa da Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko guztien estrategiak eta jarduerak planifikatu, antolatu eta koordinatzeko, indarrean dagoen aldian, eta adikzioen arloan diruz laguntzekoak izango diren jardueren eta esku-hartzeen muga eta orientazioa ezartzen du.

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren betebeharrak honakoak dira besteak beste: EAEk adikzioen arloan izan beharreko politika integrala zehaztea, droga-mendekotasunak eta portaera-adikzioak prebenitzeko programak eta ekimenak bultzatu eta mantentzea eta gizarterakundeek, hedabideek eta, oro har, herritarrek droga-mendekotasunen arloko prebentzioan, laguntzan eta gizarteratzean parte har dezaten bultzatzea.

1.3.- Ikertzea eta berritzea

Ezagutzaren sektore trinkoenetariko bat da osasuna, baita Euskal Autonomia Erkidegoan ere, eta plataforma bakana da espezializazio adimentsua egiteko herri bezala zenbait arlotan, hala nola bizitzaren zientzien industrian, (farmazeutikoa eta, bioteknologikoa, gailu medikoak, makinaria eta ekipamendua barne); arlo soziosanitarioan eta zaintzarenean; eta giza-osasunari aplikatutako informazio- eta komunikazio-teknologienean. Ildo horretan, Osasun Sailak bultzatzen ditu ikerketa eta garapena, berrikuntza eta inbertsioko jarduerak bere lerro estrategikotzat joaz, gure herriak gaian egiten dituen apustu estrategiko handien barruan.

Euskal Autonomia Erkidegoak lehentasunezko arlotzat jo zuen biozientziak/osasuna binomioa, Euskadi RIS 3rako espezializazio adimentsuaren strategiaren barruan (Research and Innovation Strategy for Smart Specialisation), zeina "Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren (ZTBP 2020) barruan baitzegoen. ZTBP 2030ean. arlo horri Osasun Pertsonalizatua deitzen zaio, baina lehentasunezkoa izaten jarraitzen du.

Osasun-arloan Ikertzeko eta Berritzeko hurrengo estrategia 2021ean landuko du Osasun Sailak, sailaren lerro estrategikoak (zehazki ikerkuntza eta berrikuntza indartzera zuzendutakoa), eta RIS3 Euskadi eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planari buruzkoa (2030) ere, garatze aldera.

Apirilaren 25eko 14/1986 Legeak, Osasunari buruzkoak, ekainaren 26ko 8/1997 Legeak, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzkoak, uztailaren 3ko 14/2007 Legeak, Ikerketa Biomedikoari buruzkoak eta ekainaren 1eko 14/2011 Legeak, Zientziari, Teknologiari eta Berrikuntzari buruzkoak, ikerketa sanitarioa sustatzeko erreferentzia-esparru bateratu bat eskaintzen dute, eta era eraginkorragoan funtzionatzeko baldintzak ezartzen dituzte.

Osasun Sailak, Osasun-arloko Ikerketa eta Berrikuntzarako Zuzendaritzaren bitartez, ikerketa sustatzen du, helburu hauek, besteak beste, kontuan hartuta: osasun-sistemaren premiei erantzuteko orientazioa; osasun-sisteman bertan zein beste entitate batzuekin beharrezkoa den

lankidetza I+G+ B proiektuak sortzeko eta garatzeko, horrela garapen sozioekonomikoari lagunduz; intereseko eremu estrategikoak babestu; eta osasun arloko ikerkuntzara bilduko diren profesional berriak bilatu.

1.4.- Profesionalak.

Instalazio onak eta azken teknologiak edukitzeaz gain, langile gaituak eta konprometituak edukitzea da kalitateko zerbitzua ematen jarraitzeko estrategiarik onena. Osasun-zerbitzuetan pertsonentzat eta pertsonekin jarduten da. Horregatik, langileak dira EAeko osasun-sistemako kapital nagusia.

Profesional horien konpromisoak, partaidetzak eta erabakiak hartzeko lidergo partekatuak gakoak izan behar dute sistema publiko bera kontserbatzeko. Eusko Jaurlaritzak lan egingo du maila handiago batean integratzeko bere profesionalak, partaidetza, berrikuntza eta hobekuntza etengabea sustatuz, sistema emaitzak lortzera bideratuz, betiere elkarrizketaren eta akordioak lortzearen aldeko filosofiaz eta langileen, haien ordezkarien eta kudeatzaileen artean erantzukizun partekatuz.

Arlo honetan aurreikusitako jarduketan artean dago etengabeko prestakuntzarako eta ezagutzaren kudeaketarako aukera ematea. Horretarako, programak emango zaizkie eta ikastaroak finantzatuko zaizkie; hori guztia, osasun arloko eta osasun-arloko ez diren langileen garapen profesionala sustatzeko eta kualifikazio onena bermatzeko.

Aipatutako helburua lortze aldera aurrera egiteko, Osasun Sailak zenbait diru-laguntzen lerro garatuko ditu urteko deialdien bidez.

- Osasun-arloko profesionalen prestakuntzarako bekak eta laguntzak..
- Osasun-arloko erakundeetarako laguntzak, bai funtzionamendurako bai prestakuntza-jarduerak, bilerak eta topaketa zientifikoak antolatzeko.

Sailak baditu beste dirulaguntza-lerro batzuk ere helburu horretarako: Mediku Gaixoaren Atentzio Integraleko Programa (MGAIP), Erizaintza arloko Laguntza Integraleko Plana, eta Euskal Herriko Unibertsitateari diru-laguntza Familia eta Komunitate Medikuntzako Gela bat sortu eta garatzeko.

2.- Planaren egokitasuna eta justifikazioa.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren 2021eko Diru-laguntzen Plan Estrategikoak Diru-laguntzen Lege Orokorrak (azaroaren 17ko 38/2003 Legea) ezarritako baldintzak betetzen ditu. Lege hori zuzentzen duen printzipioetariko bat da gardentasunarena. Haren eta lege horretan bertan antolatzen diren tresna ugariaren helburua da zuzenean eragitea diru-laguntzen gastu publikoaren kudeaketan efikazia eta efizientzia-mailak handitzen.

Esangura horretan, diru-laguntzei buruzko informazio zabalari esker merkatuaren nahasketak edo distortsioak desagertzen dira, administrazio publikoen jardueren osagarritasuna eta koherentzia errazten da eta gainjartzeak saihesten dira.

3.- Ardatz estrategikoak eta diru-laguntzen lerroak.

- Osasuna sustatzea eta gaixotasunak prebenitzea.
- Adikzioak prebenitzea eta artatzea, eta arriskuak eta kalteak gutxitzea.

- Ikertzea eta berritzea
- Profesionalak

3.1.- OSASUNA SUSTATZEA ETA GAIXOTASUNAK PREBENITZEA

3.1.1.- GIB/HIESaren, Sexu Transmisiozko Infekzioen eta C hepatitisaren esparrurako diru-laguntzak.

3.1.1.1.- Helburuak

1.-Gizarte osoan GIBa, C hepatitis eta Sexu Transmisiozko Infekzioak prebenitzea, baina arrisku handiko kolektiboen artean bereziki, adibidez: gizonekin sexua duten gizonak, immigrazio jatorria duten pertsonak, drogak bide parenteraletik kontsumitzen dituzten pertsonak eta prostituzioan diharduten pertsonak.

2.- GIBagatik infekzioaren, Sexu Transmisiozko Infekzioen eta C hepatitisaren diagnostiko goiztiarrak bultzatzea, diagnostiko-probak sustatuz.

3.-GIBarekin eta C hepatitisarekin bizi diren pertsonen laguntza ematea, bizi kalitatea hobetuz eta pairatzen jarraitzen duten gizarte estigma eta bazterkeria gutxituz.

3.1.1.2.-Bilatutako ondorioak

1.- Osasun Sailari jarduera hauetan laguntzea: transmisio sexualeko infekzioak gutxitzea, GIB/ Hiesa eta C hepatitis prebenitzera eta kontrolatzera bai eta gaixotasun hori nozitzen duten pertsonak artatzera zuzendutakoetan.

2.- GIB/HIES, transmisiozko infekzio eta C hepatitisaren arloan programak eta jarduerak sustatzea eta indartzea, betiere gizarte-sarean errotuta badaude edo errotzeko bidean badaude.

3.1.1.3.- Ekintza-plana

Osasuneko sailburuaren agindu bat onartzea, zehazkiago, GIB/HIESa, Sexu Transmisiozko Infekzioak eta C hepatitis prebenitzera eta kontrolatzea bideratzen diren eta Administrazioak bestela haiengana heltzerik ez duen biztanle bereziki ahulengana heltzen diren irabazteko asmorik gabeko ekimen sozialeko entitateei zuzendutako diru-laguntzen deialdia egin eta laguntzak onartzekoa.

Hona hemen lehenetsitako proiektuak: gizonekin sexu harremanak dituzten gizon-taldeei zuzendutakoak, talde ahulak xede dituztenak –esaterako, immigranteak–, drogak bide parenteralaren bidez hartzen dituztenentzakoak, prostituzioan jardun dutenentzakoak eta infekzioa goiz detektatzeko proiektuak.

3.1.1.4.- Finantzaketa

Deialdi hori finantzatzeko, aurrekontu-aplikazio bat dago aurrekontu orokorretan, 300.000 € horniduraz, Osasun Sailaren aurrekontuen 4. kapituluaren kontura (gastu arruntren transferentziak eta diru-laguntzak).

3.1.1.5.- Adierazleak

Zenbat erakunderi emango zaion diru-laguntza: 16 erakunderi.

3.1.2.- Osasuna tokian toki sustatzeko diru-laguntzak.

3.1.2.1.- Helburuak

1.- Euskadiko jendarteak gehiago parte hartzea eta hobeto ahaldunduta egotea.

2.- Erakundeen eta eragileen arteko lana optimizatzea, sinergiak sortzea eta aliantzak jostea, osasunaren alde denon artean egin behar dugun lana garatzeko.

3.1.2.2.- Zer lortu nahi den

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak osasuna tokian tokiko sustatzearen alde egiten du, biztanleriaren osasun-egoera hobetzeko. Bada, diru-laguntza horiek apustu horren barruan sartzen dira.

3.1.2.3.- Ekintza-plana

Osasuneko sailburuak agindu bat onartuko du, deialdi bat egiteko osasuna tokian toki sustatzeko laguntzetarako.

Zer finantzatu den:

a) Jendarteak parte hartzeko prozesuak sortzeko edo dinamizatzeko ahaleginak, prozesuaren helburua baldin bada osasuna tokian toki sustatzeko ekintzak eta estrategiak lehenetsi, planifikatu eta garatzea.

b) Osasuna sustatzeko jarduerak, baldin eta helburuak komunitarioak badira, komunitatearen premiak, nahiak, arazoak edo intereseko gaiak asetzeko badira, eta komunitateak parte hartzeko prozesuen barruan garatzen badira.

3.1.2.4.- Finantzaketa

Deialdi hori finantzatzeko, aurrekontu-aplikazio bat dago aurrekontu orokorretan 250.000 €ko horniduraz, 175.000 €koa 2021eko ekitaldirako eta 75.000 eurokoa 2022ko ekitaldirako, Osasun Sailaren aurrekontuen 4. kapituluaren kontura (gastu arrunten transferentziak eta diru-laguntzak).

3.1.2.5.-Adierazleak

Diruz lagundu beharreko proiektu-kopurua: 45 proiektu

3.1.3 Gaixoen eta haien familien kolektiboen bizi-kalitatea hobetzen diharduten irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko elkarteei zuzenduta.

3.1.3.1.- Helburuak

1.- Gaixorik daudenek eta haien familiek gaixotasuna eta bere tratamendua hobeto ezagutzen laguntzea.

2.- Gaixorik daudenak trebatzea beren gaixotasuna maneiatzeko gauza izan daitezen, bai eta patologia bera dutenen arteko elkar-laguntza indartzea ere.

3.- Bizi-kalitatea hobetzeko jokabide osasungarriak sustatzea, biztanleriaren ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko, aldi berean.

3.1.3.2.- Zer lortu nahi den

Elkartzeko, komunikatzeko eta laguntza emateko guneak dira elkarte horiek, gaixoentzat nahiz haien familientzat. Osasun Sailak bereziki baloratzen du entitate horiek pertsona gaixoen eta haien senideen osasun fisikoaren, psikologikoaren eta sozialaren alde egiten duten ekarpena, hainbat alorretan islatzen dena, hala nola: gaixotasunen errealitate sozial eta afektiboarekiko zuzeneko kontaktua, eta zerbitzu eta autolaguntza programen bidezko zuzeneko asistentzia eta laguntza enpatikoa.

Horregatik, eta Osasun Planaren 2. lehenetsunezko arloaren ildotik (gaixorik dauden pertsonak), zenbait patologia (minbizia, diabetesa, gaixotasun kardiobaskularrak, arazo nutrizionalak, arazo neurodegeneratiboak eta neuromuskularrak, gaixotasun psikikoak, eta abar) dituzten pertsonen sendatzeko, errehabilitatzeko eta ondoeza arintzeko helburua duten ekintzekin lagundu nahi zaie.

Halaber, erabiltzaileen eta berorien senideen parte-hartzea eta ahalduntzea sustatu nahi da, eta osasun sistemarekin duten erantzukizuna sustatu.

3.1.3.3.- Ekintza-plana

Osasuneko sailburuaren Agindu bat onartzea, EAEko gaixoen eta haien familien kolektiboen bizi-kalitatea hobetzen diharduten irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko elkarteei zuzendutako laguntzen deialdia egiteko.

Helburu hauek dituzten jarduerak lehenetsiko dira:

a) Gaixotasunen bat duten pertsonen kolektiboei eta haien familiei trebetasunak eta baliabideak garatzen laguntzea, beren burua zaintzeko ahalmena maximizatzeko eta autonomia areagotzeko.

b) Gaixoei laguntasuna ematea eta haien gizarte- eta osasun-premiak bideratzea; jomuga izanik osasuna zaintzea eta sustatzea eta erkidegoa indartzea.

c) Gaixoeak eta haien familiek gaixotasunari buruz, haren arrisku-faktoreei buruz eta bizi-ohitura egokienei buruz duten ezagutza eta informazioa sakontzea.

d) Gaixoeak osasunaren aldetik besteekiko dituzten desberdintasunak gutxitzea, eta genero-ikuspuntua gehitzea.

3.1.3.4.- Finantzazioa

Deialdi hori finantzatzeko, aurrekontu-aplikazio bat dago aurrekontu orokorretan, 300.000 € eta 210.000 €ko horniduraz 2021eko ekitaldirako eta 90.000 eurokoaz 2022ko ekitaldirako, Osasun Sailaren aurrekontuen 4. kapituluaren kontura (gastu arrunten transferentziak eta dirulaguntzak).

3.1.3.5.- Adierazleak

Diruz lagundu beharreko proiektu-kopurua: 80 proiektu.

3.1.4.- Elkarte eta kooperatibetarako dirulaguntzak, ikasleen artean jarduera fisikoa sustatzeko eta egonkeria gutxitzeko proiektuak garatzeko jendeak parte hartuz.

3.1.4.1.- Helburuak

1.- Ikasleen artean jarduera fisikoa sustatzeko eta egonkeria gutxitzeko partizipazio-proiektuetan laguntzea, ikasleek osasun hobea eta autonomia handiagoa izan dezaten egiten baitira.

3.1.4.2.- Zer lortu nahi den

1.- Osasun Planaren (2013-2020) helburuei laguntzea, bereziki bosgarren lehentasunezko arloan (ingurune eta jokabide osasungarriak).

2.- Ikasleei bizimodu aktiboagoa eta ez hain sendentarioa lortzen laguntzea, lortuz gero osasuna hobetuko baitute. Orobat, ikasleen autonomia areagotzea eta espazio publikoan segurtasun eta autonomia handiagoz mugitzea izan dezaten sustatzea, mugikortasun jasangarriaren jarraibideei jarraikiz.

3.- Familiari umeen ongizatea zaintzen duen gizarte-sare batean sartzea, konfiantza- eta segurtasun-sentipena lortuz, bai eta lana eta familia hobeto bateratzea ere.

4.- Ikastetxeen eta tokiko administrazioaren arteko komunikazio-loturak sortzea, etorkizunean lankidetzan aritzen laguntzeko.

5.- Eskola-curriculumean osasunari, mugikortasunari eta iraunkortasunari buruzko edukiak bideratzea.

6.- Gure laguntza ematea Euskadi Obesitatea Prebenitzeko Estrategiaren helburuetan (SANO), batiz bat bereziki eskolara eta familiei begirako helburuetan.

3.1.4.3.- Ekintza-plana

Osasuneko sailburuaren agindu bat onartzea, elkarte eta kooperatiben artean dirulaguntza-deialdi bat egiteko, EAeko ikasleen artean jarduera fisikoa sustatzeko eta egonkeria gutxitzeko ekintzak gara ditzaten.

Alderdi hauek joko dira interesgarritzat:

a) Partizipazio-proiektuak garatzea, helburu hauetarako: hiri-espazioek eskaintzen dituzten aukerak baliatuz eskola-bideak sortu eta dinamizatzeko, eta, horrela, eskola-umeen mugikortasun aktiboa eta segurua sustatzea.

b) Partizipazio-proiektuak garatzea, helburua izanik ikastetxeetako jolas-lekuak dinamizatzea edo eraldatzea, leku egokiak izan daitezten jolasean aritzeko, ariketa fisikoa egiteko eta lagunartean ibiltzeko, bai eskola-orduetan bai eskola-orduz kanpo, aniztasuna aintzat harturik (askotarikoak baikara kulturaz, etniaz, adinez, sexuz, funtzionaltasunez eta abar) eta ikasleen eta familien beharretara eta interesetara egokiturik.

c) Helburu honetarako jarduerak bultzatzea: jarduera fisikoa familian egin dadin sustatzea, hala nola mendian ibiltzea, edo bizikletan, edo patinetan; edo familian jolasean egitea, besteak beste.

3.1.4.4.- Finantzazioa

Deialdi hori finantzatzeko, aurrekontu-aplikazio bat dago aurrekontu orokorretan 136.000 €ko horniduraz, 95.200 €koa 2021eko ekitaldirako eta 40.800 eurokoa 2022ko ekitaldirako, Osasun Sailaren aurrekontuen 4. kapituluaren kontura (gastu arrunten transferentziak eta diru-laguntzak).

3.1.4.5.- Adierazleak

Diruz lagundu beharreko proiektu-kopurua: 35 proiektu

3.1.5.- Preskribatutako tratamendu medikoak ez uzteko laguntzak (2021eko ekitaldia).

3.1.5.1.-Helburua

1.- Euskadiko Osasun Sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak, finantzaketa publikoa jaso dezaketenak, gaixotasun- eta behar-egoera objektiboan dauden pertsonek bete ditzaten erraztea.

3.1.5.2.- Zer lortu nahi den

1.- Osasun Planaren (2017-2020) helburuei laguntzea, bereziki 5.1. arlokoak (Ekitatea eta erantzukizuna eta haren 1.2. Helburua (1.2.- Ekitatea), osasun-arloan dauden desberdintasun sozialen arazoari heltzeko eta desberdintasun horiek gutxitzeko.

2.- Mediku-tratamenduan egonik, haien muga ekonomikoak edo gizarte-bazterketako egoera direla-eta mediku-preskripzioak behar bezala ez betetzeko edo uzteko arriskua duten pertsonei tratamendua jasotzen jarrai dezaten laguntzeko mekanismoak garatzea.

3.1.5.3.- Ekintza-plana

Osasuneko sailburuaren agindu bat onartzea, preskribatutako tratamendu medikoak ez uzteko laguntzetarako deialdia egiteko eta arautzekoa.

Zehazkiago, pertsona hauek izango dira laguntzen hartzaileak:

a) Osasun-babeserako eta osasun-laguntzarako eskubidearen titularrak, baldin eta Gizarte Segurantzaren pentsiodunak badira, urtean 18.000 eurotik beherako diru-sarrerak badituzte eta Euskadiko Osasun Sistema bermatzaile gisa duen banako osasun-txartelaren titularrak badira.

b) Osasun-babeserako eta osasun-laguntzarako eskubidearen titularrak, baldin eta legez langabezia-egoeran badaude eta urtean 18.000 eurotik beherako diru-sarrerak badituzte, Euskadiko Osasun Sistema bermatzaile gisa duten banako osasun-txartelaren titularrak badira.

c) Osasun-babeserako eta osasun-laguntzarako eskubidearen titularrak, baldin eta diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen badute beren laneko errentak osatzeko, eta Euskadiko Osasun Sistemak bermatzen duen banako osasun-txartelaren titularrak badira.

d) Aurreko Hiru apartatuetan aipatu ditugun osasun-babeserako eta osasun-laguntzarako eskubidearen titularren onuradunak, Euskadiko Osasun Sistemak bermatzen duen banako osasun-txartelaren titularrak badira.

e) Espainiako Estatuan erregistratu gabe edo egoiliar gisa baimendu gabe dauden atzerritarrak, Espainiako nazionalitatea dutenen baldintza berberetan osasun-babeserako eta osasun-laguntzarako eskubidea dutenak, baldin eta eskubide hori egiaztatzeko dena delako agiria badaukate Euskal Autonomia Erkidegoak emanda.

3.1.5.4.- Finantzazioa

Gai honetan, Osasun Sailak 6.039.198,06 €ko partida baliatuko du, honela banaturik: 2021ean, 2.467.512,40€; eta, 2022an, 3.571.685,66€. Bere funtsekin finantzatuko du Osasun Sailak, aurrekontuen 4. kapituluaren kontura (gastu arrunten transferentziak eta diru-laguntzak)

3.1.5.5.- Adierazleak

Zenbat eskari aurreikusten diren (2021eko urtarrilean). 118.360 eskabide.

3.2.- ADIKZIOAK PREBENITZEA ETA ARTATZEA, ETA ARRISKUAK ETA KALTEAK GUTXITZEA.

3.2.1.- Diru-laguntzak talde teknikoak sortu eta mantentzeko, adikzioen prebentzio komunitariorako programak garatzeko, arriskuak eta kalteak prebenitu eta gutxitzeko programak egiteko, bai eta 2021eko ekitaldian jarduera-eremu horietan ohitura osasungarriak sustatzeko ere.

3.2.1.1.- Helburuak

- Tokiko talde teknikoak sortu eta mantentzea, oinarritzko antolamendu-egitura gisa, adikzioen prebentzio komunitarioari lotutako politika eraginkortasunez gauzatzea lortzeko.
- Arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta gutxitzeko programak eta esku-hartzeak garatzea, bai eta ohitura osasungarriak sustatzeko ere. Programa eta esku-hartze horiek adikzioen edo droga-mendekotasunen alorreko tokiko planetan egon behar dute, onartuta edo prestatzeko prozesuan, udalek banaka edo mankomunitatuta prestatu eta garatu behar dituzte, eta ekintza egituratu eta koordinatuen multzo ordenatu bat osatu behar dute.
- Irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeek proiektuak egitea eta garatzea, adikzioen eremuko arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta gutxitzeko, bai eta jarduera-esparru horretan ohitura osasungarriak sustatzeko ere.

3.2.1.2.-Zer lortu nahi den

Osasun integrala (fisikoa, mentala eta harremanetarakoa) zaintze aldera, erakunde arteko koordinazioa eta hirugarren sektorearekiko lankidetzatza oinarri hartuta, hauek sustatu nahi dira: balio positiboak eta gizartearen aldekoak osasun publikoaren arloan, ohitura osasungarriak adikzioen esparruan, eta osasun-heziketa. Hori guztia, adikzioekin lotutako arrisku-faktoreak eta kalteak murrizteko.

Tokiko talde teknikoei lanbide-trebakuntza egokia ematea, adikzioen prebentzio komunitarioari lotutako politika eraginkortasunez gauza dezaten, eta irabazi-asmorik gabeko entitate pribatuek garatutako droga-mendekotasunak eta portaera-adikzioak prebenitzeko programak eta ekimenak bultzatu eta mantentzea.

Jarduketak, programak eta proiektuak 2017-2021eko Euskal Autonomia Erkidegoko Adikzioen VII. Planen jardun ardatz, helburu eta esparruetan txertatzea.

Adikzioen esparruko premia berriak azaltzea, eta, behar horiek kontuan hartuta, horiei erantzungo dieten jardun, programa eta proiektu berriak bultzatzea.

Proiektuak eta programak hobetzen laguntzea adikzioen alorrean, eta, horretarako, diseinu-eta sistematizazio-prozedurei jarraitzea.

3.2.1.3.- Ekintza-plana

Osasuneko sailburuaren agindu bat onartzea, Osasun Sailaren estrategia definitzen duten plangintza tresna nagusietan ezarritako lerro estrategikoetara eta ekintzetara egokitzen diren laguntzetarako deialdia egiteko eta laguntzok emateko.

Hiru diru-laguntzen lerro egongo dira:

- adikzioak prebenitzeko udal-ekipoak sortzeko eta ekipo horiei eusteko;
- adikzioen prebentzio komunitarioko udal-programa espezifikokoak garatzeko;
- eta ekimen sozialeko erakundeek arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta gutxitzeko proiektuak egiteko, bai eta jarduera-eremu horietan jokabide osasungarriak sustatzeko ere.

3.2.1.4.- Finantzaketa

2021ean 2.854.400 euro baliatuko dira helburu horiek lortze aldera.

Bere funtsekin finantzatuko du Osasun Sailak, aurrekontuen 4. kapituluaren kontura (gastu arrunten transferentziak eta diru-laguntzak)

3.2.1.5.- Aderazleak

1.- Ekipo teknikoak sortzeko eta mantentzeko lerroa

- Diruz lagundutako toki-entitateen kopurua: 36.

2.- Adikzioen prebentzio komunitarioko programak garatzeko eta ohitura osasungarriak sustatzeko lerroa.

- Diruz lagundutako toki-entitateen kopurua: 39.

3.- Arrisku eta kalteak prebenitzeko eta murrizteko proiektuak egiteko eta ohitura osasungarriak sustatzeko lerroa.

Diruz lagundutako irabazi-asmorik gabeko erakundeen kopurua: 40.

- Diruz lagundutako proiektuen kopurua 75.

3.2.2.- Diru-laguntza izendunak: Adikzioak

3.2.2.1.- Gizakia fundazioarentzako diru-laguntza, 2021ean “Andén 1” izeneko adikzioak artatzeko zentroari eusteko.

3.2.2.1.1.-Helburuak

1. Zentroa erabiltzen dutenen bizi-baldintza sanitarioak eta sozialak hobetzea.
2. Arrisku handiko drogen kontsumitzaileen ahultasun-egoerari eta bazterketa sozialari lotutako kalteak gutxitzea.

3. Zentroaren erabiltzaileei informazioa, orientazioa eta aholkua ematea, osasun-heziketarako jarduerak, bizi-baldintza osasungarriaren eta norberak bere osasuna zaintzeko jarduerak, Bilboko Udalarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin koordinatutako arreta sozialeko mekanismoak, eta Eusko Jaurlaritzaren bestelako informazio- zaintza epidemiologikoko eta ikerkuntzako sistema batzuekin lankidetzan aritzea, eta bereziki Osasunaren Euskal Behatokiarekin eta Adikzioen Behatokiarekin, osasun- eta adikzioen gaian.

3.2.2.1.2.-Zer lortu nahi den

Osasun Sailaren estrategia definitzen duten plangintza tresna nagusietan ezarritakoa betetze aldera, baliabideen egitura jarraitua sustatu nahi da, bazterkeria-egoera larrian egonik mendekotasunen bat dutenei arriskuak murrizteko eta kalteak arintzeko, bizi-kalitatea hobetzeko, bai eta mendekotasun-arazoak dituzten edo izan dituzten pertsonak gizarteratzeko ere.

Jarduera horiek sustatzen eta bultzatzen Osasun Sailaren Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak parte hartzen du, dagozkion ahalmenak gauzatuz.

3.2.2.1.3.- Ekintza-plana

Osasuneko sailburuaren dagokion agindua onartzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Gizakia fundazio zibilaren arteko lankidetzak-hitzarmena sinatzea, “Andén 1” izeneko adikzioak artatzeko zentro sozio-sanitarioari 2021ean eusteko.

3.2.2.1.4.- Finantziak

2021ean 166.101 euro baliatuko dira helburu horiek lortze aldera.

Bere funtsekin finantzatu du Osasun Sailak, aurrekontuen 4. kapituluaren kontura (gastu arrunten transferentziak eta diru-laguntzak)

3.2.2.1.5.- Adierazleak

Artatutako pertsona-kopurua eta zentroaren esku-hartzeetan egindako esku-hartzeen kopurua.

3.2.2.2.- Bizkaiko HIESaren aurkako Herritarren Batzordearentzako diru-laguntza, kalteak gutxitzeko programak kudeatzeko droga-mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentro batean (2021eko ekitaldia).

3.2.2.2.1.- Helburuak

1. Bizkaiko Hiesaren aurkako Herritarren Batzordeak kudeatzen duen Droga-mendekotasuna dutenentzako Eguneko Zentroan kalteak gutxitzeko programak garatzea.

2. Laguntza sanitarioa, konpainia-zerbitzua eta sareko lanak egitea, kalteak gutxitzeko beste dispositibo batzuekin batera, drogen kontsumo arazotsuarekin eta bazterketa sozialeko egoera bati lotuta.

3.2.2.2.2.-Zer lortu nahi den

Osasun Sailaren estrategia definitzen duten plangintza tresna nagusietan ezarritakoa betetze aldera, adikzio-arazo kronikoak dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzea. Droga-mendekotasuna duten eguneko zentro horretan kalteak gutxitzeko programen kudeaketa finantzatuko da.

Jarduera horiek sustatzen eta bultzatzen Osasun Sailaren Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak parte hartzen du, dagozkion ahalmenak gauzatuz.

3.2.2.2.3.- Ekintza-plana

Osasuneko sailburuaren dagokin agindua onartzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta Bizkaiko Hiesaren aurkako Herritarren Batzordearen arteko lankidetzak-hitzarmena sinatzea, drogapekotasunentzako eguneko zentroan kalteak gutxitzeko programak kudeatzeko, 2021eko ekitaldian.

3.2.2.2.4.-Finantziarioa

2021ean 76.000 euro baliatuko dira helburu horiek lortze aldera.

Bere funtsekin finantzatuko du Osasun Sailak, aurrekontuen 4. kapituluaren kontura (gastu arrunten transferentziak eta diru-laguntzak)

3.2.2.2.5.-Adierazleak

Artatutako pertsona-kopurua eta zentroaren esku-hartzeetan egindako esku-hartzeen kopurua.

3.2.2.3.-Bilboko Caritasentzako diru-laguntza, larrialdiko eta gaueko harrerako HONTZA zentroari eusteko.

3.2.2.3.1.-Helburuak

- "Hontza" larrialdiko eta gaueko harrerako zentroari eustea.
- Egoera txarrean dagoen droga-mendekoen kolektiboari laguntza soziosanitarioa ematea.
- Zentroko erabiltzaileen premia oinarritzkoenak asetzeko jarduerak garatzea.
- Droga-kontsumoaren ondorio kaltegarriak arintzea. Horretarako, adikzioak dituzten pertsonen arriskuak gutxituko dira, kalteak murriztu eta osasun-baldintza orokorrak hobetuko dira.

3.2.2.3.2.- Zer lortu nahi den

Osasun Sailaren estrategia definitzen duten plangintza tresna nagusietan ezarritakoa betetze aldera, adikzio-arazo kronikoak dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzea larrialdiko eta gaueko harrerarako zentro baten bitartez. Egoera txarrean dagoen droga-mendekoen kolektiboari laguntza soziosanitarioa emango dio zentro horrek.

Jarduera horiek sustatzen eta bultzatzen Osasun Sailaren Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak parte hartzen du, dagozkion ahalmenak gauzatuz.

3.2.2.3.3.- Ekintza-plana

Osasuneko sailburuaren dagokion agindua onartzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta Bilboko Caritasen arteko lankidetzak-hitzarmena sinatzea, Hontza larrialdiko eta gaueko harrerako zentroari 2021eko ekitaldian eusteko.

3.2.2.3.4.- Finantziarioa

2021ean, 146.130 euro baliatuko dira, helburu horiek lortze aldera.

Bere funtsekin finantzatuko du Osasun Sailak, aurrekontuen 4. kapituluaren kontura (gastu arrunten transferentziak eta diru-laguntzak)

3.2.2.3.5.- Adierazleak

Artatutako pertsona-kopurua eta zentroaren esku-hartzeetan egindako esku-hartzeen kopurua.

3.2.2.4.- Deustuko Unibertsitatearentzako diru-laguntza, drogomendekotasunaren inguruko prestakuntza- eta ikerkuntza-jarduerak egin ditzan.

3.2.2.4.1.- Helburuak

- Adikzioekin lotuta gizartean, osasun-arloan eta ekonomian sortzen diren arazoekin zerikusia duten ikasketak eta ikerketak egitea.
- Adikzioekin lotutako prestakuntza-jarduerak antolatzea eta egitea.
- Adikzioei buruzko ezagutza zabaltzea.

3.2.2.4.2.- Bilatutako ondorioak

Osasun Sailaren estrategia definitzen duten tresna nagusietan ezarritako edukia betetzeko:

- Unibertsitateekin eta gaian entzutetsuak diren entitateekin batera lan egitea, adikzioen gaian ikerkuntza-, prestakuntza- eta ezagutza zabaltzeko jarduerak bultzatzeko, bereziki profesionalei, arduradun publikoei, ekimen sozialeko entitateei eta unibertsitateko ikasleei zuzenduak.

- Prebentzioko, laguntzako eta gizarteratzeko programak hobeto ebaluatzen laguntzea.

Jarduera horiek sustatzen eta bultzatzen Osasun Sailaren Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak parte hartzen du, dagozkion ahalmenak gauzatuz.

3.2.2.4.3.- Ekintza-plana

Osasuneko sailburuaren dagokion agindua onartzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren (Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza) eta Deustuko Unibertsitatearen arteko lankidetzak-hitzarmenaren eranskina sinatzea, 2021eko ekitaldiari buruzkoa.

3.2.2.4.4.- Finantziak

2021ean 73.200 euro baliatuko dira helburu horiek lortze aldera.

Bere funtsekin finantzatu du Osasun Sailak, aurrekontuen 4. kapituluaren kontura (gastu arrunten transferentziak eta diru-laguntzak)

3.2.2.4.5.- Adierazleak

Prestakuntza-jardueretan parte hartutako pertsonen kopurua, egin beharreko jardunaldien kopurua eta dokumentuen eta argitalpenen zerrenda.

3.2.2.5.- Diru-laguntza Eguía-Careaga fundazioarentzat (Dokumentazio- eta ikerketa zentroa-SIS), drogamendekotasunarekin zerikusia duten gaiak ikertzeko eta ezagutza zabaltzeko jarduerak garatzeko.

3.2.2.5.1.- Helburuak

1. Drogamendekotasunarekin zerikusia duten gaiak ikertzeko eta zabaltzeko jarduerak garatzea.
2. Euskadiko Drogamendekotasunen Dokumentazio Zentroa kudeatzea.
3. Drogamedia webguneari eustea eta haren eguneroko buletin elektronikoa egitea, bai eta monografikoak ere.

3.2.2.5.2.- Zer lortu nahi den

Osasun Sailaren estrategia definitzen duten plangintza tresna nagusietan ezarritakoa betetze aldera, gaian entzutetsuak diren entitateekin batera lan egitea, adikzioen gaian ikerkuntza-, prestakuntza- eta ezagutza zabaltzeko jarduerak bultzatzeko, bereziki profesionalei, arduradun publikoei, ekimen sozialeko entitateei eta komunikabideei, bai eta gizarte osoari ere.

Jarduera horiek sustatzen eta bultzatzen Osasun Sailaren Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak parte hartzen du, dagozkion ahalmenak gauzatuz.

3.2.2.5.3.- Ekintza-plana

Osasuneko sailburuaren dagokion agindua onartzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren (Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza) eta Eguía-Careaga SIS Fundazioaren arteko lankidetzak-hitzarmena sinatzea, 2021eko ekitaldiari dagokiona.

3.2.2.5.4.- Finantziak

2021ean 100.000 euro baliatuko dira helburu horiek lortze aldera.

Bere funtsekin finantzatu du Osasun Sailak, aurrekontuen 4. kapituluaren kontura (gastu arrunten transferentziak eta diru-laguntzak)

3.2.2.5.5.- Adierazleak

Erregistratzen diren erreferentzia kopurua, erantzun beharreko kontsulta kopurua eta argitaratu beharreko dokumentuen eta txostenen kopurua.

3.3.- IKERKETA ETA BERRIKUNTZA

3.3.1.- Osasun-arloko ikerketa-eta garapen-jarduerak eta proiektuetarako laguntzak.

3.3.1.1.- Helburuak.

Deialdiaren helburuak hiru dira: esparru eta modalitate batzuetako I+G jarduerak eta proiektuak finantzatzea, eta, horretarako, gaixotasunen prebentzioa, diagnosia eta/edo tratamendua hobetzera bideratutako jakintza sortzen, zabaltzen eta/edo aplikatzen laguntzea; osasun publikoa sustatzen eta osasun-zerbitzuak hobetzen laguntzea; eta sistemak erronka sozioekonomikoei erantzuteko daukan gaitasuna indartzen laguntzea. Eta, horretarako, esparru batzuk bereiztea erabaki da, besteak beste: “osasun-arloko ikerketa sustatzea”, “osasun-arloko ikerketa biziagotzea”, “osasun-arloko ikerketa estrategikoa indartzea”, edo “ekintza osagarri bereziki interesgarriak”.

3.3.1.2.- Zer lortu nahi den

Osasuneko ikerketa eta garapen proiektuentzako eta jardueretarako laguntzen bidez, Eusko Jaurlaritzak, azken finean, pertsonen osasuna eta osasun sistemaren kalitatea, efikazia eta efizientzia hobetu nahi du, bai eta garapen sozioekonomikoari lagundu ere, osasun- laguntza eta bizi kalitatea hobetuko duten produktuak, zerbitzuak eta prozesuak garatzearen bidez.

Zehazkiago, laguntzekin lortu nahi da:

- ZTPB 2030 eta RIS3-ren helburuei laguntzea osasun pertsonalizatuaren alorrean.
- Osasun Plan berriak I+Gn oinarriturik dituen helburuetan laguntzea (plan hori onartu bitartean, orain arteko bide bertsutik jarraituko dugu).
- Ikerketa traslazonalaren ikuspegia indartzea, baita osasun-sisteman aplikatu ahal izateko emaitza erabilgarriak lortzea ere, transferentzia teknologikorako aukera gisa.
- Osasun-programa, -ekimen edo -planetan I+G+bren inguruan aurkituko ditugun helburuak betetzea (hala nola Euskadiko Plan Onkologikoa 2018-2023).

3.3.1.3.- Ekintza-plana

Osasuneko sailburuaren dagokion agindua onartzea, da dagokion-arloko ikerketa eta garapen proiektuei laguntzen deialdia egiteko.

3.3.1.4.- Finantzazioa

Aurreikuspena da 2021ean 5.650.000 euro erabiltzea helburu horretarako, bitan banaturik. Alde batetik, urte anitzeko proiektuetarako, 3.150.000 €, honela banaturik: 100.000 € ordainketa-kredituetan 2021erako; eta konpromiso-kredituak, berriz, 1.070.000 euro 2022rako, 1.070.000 euro 2023rako, eta 910.000 euro 2024rako. Bestalde, badira beste proiektu batzuk 2021ean exekutatu direnak eta finantzazioa 5414 programatik datorkienak (RIS3-PCTI 2030era loturik), bada, 2.500.000 € proiektu horietarako izango dira.

3.3.1.5.- Adierazleak

Zenbat I+G proiektu datorren osasun-sisteman sortzen ari diren eta finantzatuta dauden taldeetatik: 5

Osasuneko zenbat I+G proiektu integratu: 2

Osasun-eragileen I+G proiektu biomedikoen kopurua: 5

Zenbat ikerketa-proiektu osasun-zerbitzuetan: 5

RIS3 estrategiaren barruan zenbat proiektu eta lankidetzak- eta garapen-ekintza dagoen: 15

I+G proiektuen artetik gutxienez ehuneko zenbatetan dauden emakumeak gidari (ikertzaile nagusiak, IP): % 45

3.3.2.- Diru-laguntza izendunak: Ikerketa eta berrikuntza.

3.3.2.1.- KRONIKGUNE irabazi-asmorik gabeko elkartearantzako diru-laguntza (Osasun Zerbitzuen Ikerketa Zentroa).

3.3.2.1.1.- Helburuak

Kronikgune Osasun Zerbitzuen Ikerketa Zentroari emandako laguntzaren helburua zentroak bere helburuak betetzeko egiten dituen jarduerak erraztea da – Osasun-zerbitzuen eta zerbitzu soziosanitarioen kudeaketan eta antolaketan ikerketa sustatzea eta egitea –.

3.3.2.1.2.-Zer lortu nahi den

Ea garatzen dugun plan estrategiko bat, osasun-zerbitzuetan egin beharreko ikerketak egiteko, arlo hauetan: Osasun-politiken ebaluazioa; prozesuaren eta emaitzen ebaluazioa; erabakiak hartzeko laguntza; eta antolaketa-ereduen garapena eta ebaluazioa; hori guztia zahartze aktiboarekin eta osasungarriarekin lotuta. Erakundearen sorrerako helburuak garatzeko proiektuak prestatu, kudeatu eta koordinatzeko jardueretarako laguntza ere jasotzen da.

Osasun Sailaren estrategia definitzen duten planifikazioko tresnak betetze aldera, Osasunean Ikertzeko eta Berritzeko politikak barne.

3.3.2.1.3.- Ekintza Plana

Osasuneko sailburuaren agindu bat onartzea 2021eko ekitaldirako.

3.3.2.1.4.- Finantziarioa

2021ean 575.818 euro baliatuko dira helburu horiek lortze aldera.

Bere funtsekin finantzatu du Osasun Sailak, aurrekontuen 4. kapituluaren kontura (gastu arrunten transferentziak eta diru-laguntzak)

3.3.2.1.5.- Aderazleak

Plan estrategikoan ezarritako helburuak betetzea.

Europako zenbat proiektu kudeatu behar diren. 3.

3.3.2.2.- Bioaraba Osasun Ikerketako Institutuari diru-laguntza izenduna ematea (Bioaraba elkarteak ez du irabazi-asmorik). 4114. programa

3.2.2.3.1.-Helburuak

Bere helburu hauek betetzeko egiten dituen jardueretan laguntzea.

a. Ikerketa biomedikoa, epidemiologikoa, osasun publikokoa eta osasun-zerbitzuetakoa sustatzea.

b. Osasun-sistemaren programak eta politikak zientifikoki oinarritzea.

c. Aukeran, ikerketa traslazonala indartzea. Halakotzat hartzen da ezagutza zientifikoak jardunbide klinikora azkarrago eramateko ikerketa, nazioarteko gomendioei jarraikiz.

d. Prestakuntza-jarduerak egitea.

3.3.2.2.2.- Zer lortu nahi den

Institutuaren 2019-2023 plan estrategikoa garatzea. Ikerketa- eta berrikuntza-arloko zazpi ardatz dauzka: Kardiobaskularra, arnasketakoa eta metabolikoa; garapen farmakologikoa; gaixotasun infektzioak, inflamatorioak eta immunomediak; osasun-arloko garapen berriak; diagnostika eta terapeutika onkologikoa; neurozientziak; prebentzioa, osasuna sustatzea eta zaintzea; eta ama-haurren ugalketa eta osasuna.

Osasun Sailaren estrategia definitzen duten planifikazioko tresnak betetze aldera, eta, bereziki, Osasunean Ikertzeko eta Berritzeko dituen politikak inguruan.

3.2.2.5.3.- Ekintza-plana

Osasuneko sailburuaren agindu bat onartzea 2021eko ekitaldirako.

3.3.2.2.4.-Finantziarioa

2021ean 423.800 euro baliatuko dira helburu horiek lortze aldera.

Bere funtsekin finantzatu du Osasun Sailak, aurrekontuen 4. kapituluaren kontura (gastu arrunten transferentziak eta diru-laguntzak)

3.3.2.2.5.- Adierazleak

Plan estrategikoan ezarritako helburuak betetzea.

3.3.2.3.- Biocruces Bizkaia Osasun Ikerketako Institutuari diru-laguntza izenduna ematea (irabazi-asmorik gabeko elkartea da). 4114. programa

3.3.2.3.1.- Helburuak

Bere helburu hauek betetzeko egiten dituen jardueretan laguntzea:

- a. Ikerketa biomedikoa, epidemiologikoa, osasun publikokoa eta osasun-zerbitzuetakoa sustatzea.
- b. Osasun-sistemaren programak eta politikak zientifikoki oinarritzea.
- c. Aukeran, ikerketa traslazonala indartzea. Halakotzat hartzen da ezagutza zientifikoak jardunbide klinikora azkarrago eramateko ikerketa, nazioarteko gomendioei jarraikiz.
- d. Prestakuntza-jarduerak egitea.

3.3.2.3.2.- Zer lortu nahi den

2018-2022 plan estrategikoa garatzea. Ikerketa-arloko zazpi ardatz dauzka: Minbizia; Endokrinologia, metabolismoa, nutrizioa eta giltzurrunetako gaixotasunak; gaixotasun autoimmuneak, inflamatorioak eta infekziosoak; nerbio-sistemako gaixotasunak; ama-haurren osasuna eta ugalketa lagundua; berrikuntza kirurgian eta transplantean eta osasunerako teknologietan; eta lehen mailako arreta osasunean, prebentzioan eta gaixotasun kronikoetan.

Osasun Sailaren estrategia definitzen duten planifikazio-tresnak betetze aldera, batez ere Osasunean Ikertzeko eta Berritzeko dauzkan politikei dagokienez.

3.3.2.3.3.- Ekintza-plana

Osasuneko sailburuaren agindu bat onartzea 2021eko ekitaldirako.

3.3.2.3.4.- Finantzazioa

2021ean 1.630.118 euro baliatuko dira helburu horiek lortze aldera.

Bere funtsekin finantzatuko du Osasun Sailak, aurrekontuen 4. kapituluaren kontura (gastu arrunten transferentziak eta diru-laguntzak)

3.3.2.3.5.- Adierazleak

Plan estrategikoan ezarritako helburuak betetzea.

3.3.2.4.- Biodonostia Institutuari diru-laguntza izenduna ematea (Biodonostia elkarreak ez du irabazi-asmorik). 4114. programa

3.3.2.4.1.- Helburuak

Bere helburu hauek betetzeko egiten dituen jardueretan laguntzea:

- a. Ikerketa biomedikoa, epidemiologikoa, osasun publikokoa eta osasun-zerbitzuetakoa sustatzea.
- b. Osasun-sistemaren programak eta politikak zientifikoki oinarritzea.
- c. Aukeran, ikerketa traslazonala indartzea. Halakotzat hartzen da ezagutza zientifikoak jardunbide klinikora azkarrago eramateko ikerketa, nazioarteko gomendioei jarraikiz.
- d. Prestakuntza-jarduerak egitea.

3.3.2.4.2.- Zer lortu nahi den

2021-2025 plan estrategikoa garatzea. Ikerketa-arloko hamar arlo dauzka: zazpi bertikalak eta hiru zeharkakoak: Neurozientziak; Gaixotasun Hepatikoak eta Gastrointestinalak; Gaixotasun Infekziosoak; Onkologia; Epidemiologia eta Osasun Publikoa; Bioingeniaritza eta Gaixotasun Sistemikoen Arloa; Zahartzea; Zehaztasun Medikuntza; eta Berrikuntza. Eta horren guztiaren lagun, lau ekintza-ardatz: ikerketa traslazonala; berrikuntza eta medikuntza teknologikoa; nazioartekotzea; kudeaketa eta azpiegiturak.

Osasun Sailaren estrategia definitzen duten planifikazioko tresnak betetze aldera, batez ere Osasunean Ikertzeko eta Berritzeko darabiltzan politikei dagokienez.

3.2.2.5.3.- Ekintza-plana

Osasuneko sailburuaren agindu bat onartzea 2021eko ekitaldirako.

3.3.2.4.4.- Finantzazioa

2021ean 526.677 euro baliatuko dira helburu horiek lortze aldera.

Bere funtsekin finantzatuko du Osasun Sailak, aurrekontuen 4. kapituluaren kontura (gastu arrunten transferentziak eta diru-laguntzak)

3.3.2.4.5.- Adierazleak

Plan estrategikoan ezarritako helburuak betetzea..

3.3.2.5.- Bioaraba Osasun Ikerketako Institutuari diru-laguntza izenduna ematea (Bioaraba elkarteak ez du irabazi-asmorik). 5414 programa (Medtech ekimena)

3.3.2.5.1.- Helburuak

Jarduera batzuetan laguntzeko ematen zaio dirulaguntza Bioaraba Osasun Ikerketako Institutuari, hain zuzen ere lau arlotan, laurak ere Euskadiko sistema sanitarioan osasun-dispositiboak eta -teknologiak testatzearekin lotura dutenak:

- Teknologia eta osasunaren arloan ideiak eta proiektuak batera miazteko fasean dauden hasierako jarduerak eta aholkularitza-jarduerak.
- Osasun-arloko dispositiboak eta teknologiak baliozkotzea eta/edo erakustea.
- Probak egiteko behar den ekipamendua eskuratzea.
- Antolaketa, koordinazioa eta zabalkundea.

3.3.2.5.2.- Zer lortu nahi den

Baliabide honen bidez, osasun-sistemak proba-banku eta bazkide gisa duen gaitasuna sustatzen jarraitu nahi da; gaitasuna, hain zuzen ere, produktuaren garapenaren edozein fasetan probak eta testak egiteko. Bestalde, produktuaren garapen hori bizkortu egin nahi da TRLetan zehar (heldutasun teknologikoaren mailak, ingelesezko siglak erabiliz).

3.2.2.5.3.- Ekintza-plana

Osasuneko sailburuaren agindu bat onartzea 2021eko ekitaldirako.

3.3.2.5.4.- Finantzazioa

2021ean 320.000 euro baliatuko dira helburu horiek lortze aldera.

Bere funtsekin finantzatuko du Osasun Sailak, aurrekontuen 4. kapituluaren kontura (gastu arrunten transferentziak eta diru-laguntzak)

3.3.2.5.5.- Adierazleak

Eskaera-memorian jasotako adierazleak betetzea.

3.3.2.6.- Biocruces Bizkaia Osasun Ikerketako Institutuari diru-laguntza izenduna ematea (irabazi-asmorik gabeko elkarte da). 5414 programa (Medtech ekimena)

3.3.2.6.1.- Helburuak

Jarduera batzuetan laguntzeko ematen zaio dirulaguntza BioCruces Bizkaia Ikerketako Institutuari, hain zuzen ere lau arlotan, laurak ere Euskadiko sistema sanitarioan osasun-dispositiboak eta -teknologiak testatzearekin lotura dutenak:

- Teknologia eta osasunaren arloan ideiak eta proiektuak batera miazteko fasean dauden hasierako jarduerak eta aholkularitza-jarduerak.
- Osasun-arloko dispositiboak eta teknologiak baliozkotzea eta/edo erakustea.
- Probak egiteko behar den ekipamendua eskuratzea.
- Antolaketa, koordinazioa eta zabalkundea.

3.3.2.6.2.- Zer lortu nahi den

Baliabide honen bidez, osasun-sistemak proba-banku eta bazkide gisa duen gaitasuna sustatzen jarraitu nahi da; gaitasuna, hain zuzen ere, produktuaren garapenaren edozein fasetan

probak eta testak egiteko. Bestalde, produktuaren garapen hori bizkortu egin nahi da TRLetan zehar (heldutasun teknologikoaren mailak, ingelesezko siglak erabiliz).

3.3.2.6.3.- Ekintza-plan

Osasuneko sailburuaren agindu bat onartzea 2021eko ekitaldirako.

3.3.2.6.4.- Finantzazioa

2021ean 780.000 euro baliatuko dira helburu horiek lortze aldera.

Bere funtsekin finantzatuko du Osasun Sailak, aurrekontuen 4. kapituluaren kontura (gastu arrunten transferentziak eta diru-laguntzak)

3.3.2.6.5.- Adierazleak

Eskaera-memorian jasotako adierazleak betetzea.

3.3.2.7.- Biodonostia Institutuari diru-laguntza izenduna ematea (Biodonostia elkarteak ez du irabazi-asmorik). 5414 programa (Medtech ekimena).

3.3.2.7.1.- Helburuak

Jarduera batzuetan laguntzeko ematen zaio dirulaguntza Biodonostia Institutuari, hain zuzen ere lau arlotan, laurak ere Euskadiko sistema sanitarioan osasun-dispositiboak eta -teknologiak testatzearekin lotura dutenak:

- Teknologia eta osasunaren arloan ideiak eta proiektuak batera miatzeko fasean dauden hasierako jarduerak eta aholkularitza-jarduerak.
- Osasun-arloko dispositiboak eta teknologiak baliozkotzea eta/edo erakustea.
- Probak egiteko behar den ekipamendua eskuratzea.
- Antolaketa, koordinazioa eta zabalkundea.

3.3.2.7.2.- Zer lortu nahi den

Baliabide honen bidez, osasun-sistemak proba-banku eta bazkide gisa duen gaitasuna sustatzen jarraitu nahi da; gaitasuna, hain zuzen ere, produktuaren garapenaren edozein fasean probak eta testak egiteko. Bestalde, produktuaren garapen hori bizkortu egin nahi da TRLetan zehar (heldutasun teknologikoaren mailak, ingelesezko siglak erabiliz).

3.3.2.7.3.- Ekintza-plana

Osasuneko sailburuaren agindu bat onartzea 2021eko ekitaldirako.

3.3.2.7.4.- Finantzazioa

2021ean 500.000 euro baliatuko dira helburu horiek lortze aldera.

Bere funtsekin finantzatuko du Osasun Sailak, aurrekontuen 4. kapituluaren kontura (gastu arrunten transferentziak eta diru-laguntzak)

3.3.2.7.5.- Adierazleak

Eskaera-memorian jasotako adierazleak betetzea.

3.3.3- BIOEF fundazioaren laguntzak Covid-19 ikertzeko proiektuetarako (BIOEF: Berrikuntza+Ikerketa+Osasuna Euskal Fundazioa).

3.3.3.1.- Helburuak

Ikerkuntza biomedikoko proiektuak bultzatzea Covid-19ari buruz.

3.3.3.2.-Zer lortu nahi den

Pandemiarekin zerikusia duten zenbait alderdi aztertzen aurrera egitea; horixe lortu nahi da Covid-19 ikertzeko proiektuetarako laguntzen bidez (BIOEFek kudeatuak).

3.3.3.3.- Ekintza-plana

Osasuneko sailburuaren agindu bat onartzea, haren bidez egiteko laguntza horietarako deialdia (laguntzok BIOEF Berrikuntza+Ikerketa+Osasuna Euskal Fundazioak emango ditu, Covid-19 buruzko ikerketa-proiektuetarako).

3.3.3.4.- Finantzaketa

2021eko lehen hiruhilekoan jakingo da deialdiaren zuzkidura.

BIOEFek finanatziario-funtsak Euskal Tebista SAUtik hartuko ditu (ETB), EITB maratoiaren inguruan bi erakundeen artean sinaturiko lankidetzaren bitartez.

3.3.3.5.- Adierazleak

Diruz lagundu beharreko proiektu-kopurua: 5.

3.4.- PROFESIONALAK

3.4.1.- EAEko osasun-arloko profesionalak prestatzeko banakako laguntzak eta bekak.

3.4.1.1.- Helburuak

Prestakuntza jasotzea, kualifikazio optimoa bermatzeko lanabesa den heinean, eta langileen garapen profesionala garatzea.

Estatuko unibertsitate-ikastegiek, Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizatearen Ministerioaren mendeko osasun-institutuek edo autonomia-erkidegoen mendeko osasun-eskolek emandako graduondoko ikastaroetan parte hartzea bultzatzea berriaz; edo aipatutako erakundeek ematen ez badituzte ere, hitzarmen baten bitartez halako izaera lortzen duten ikastaroetan parte hartzea, baldin eta unibertsitatearen berezko graduondoko tituluen sortzaile badira eta arlo hauetan kompetentzia aurreratuak eskuratzera bideratuta badaude:

- Kudeaketa sanitarioa: kostu sanitarioen eta ospitale-kostuen kudeaketa eta kontrola; marketina; giza baliabideak; zerbitzu sanitarioen produktibitatea eta plangintza; kalitatearen kontrola; arreta soziosanitarioa; langile sanitarioen arriskuak; erakunde sanitario motak; kudeaketa sanitarioko politikak; plangintza estrategikoa; zerbitzu sanitarioen ikuskapena, eta kudeaketaren tratamendu informatikoa.

- Osasun publikoa: nabarmendu behar dira haurren obesitatearen eta elikadura-nahasmenduen prebentzioa; tresna metodologikoen ezarpena (estatistika eta epidemiologia), eta plangintza eta ebaluazioa (beharra, eskaintza eta eskaria, efikazia, eraginkortasuna, efizientzia eta ekitatea, adierazleak, gaixotasunen prebentzio- eta babes-estrategiak, eta osasunaren sustapena).

- Zainketa aringarriak: alderdi kulturalak, sanitarioak, psikosozialak, legezkoak eta etikoak; zainketa aringarrietako zerbitzuen kudeaketa; ikerketa, sintomen kontrola eta erabakiak hartzea.

- Familia- eta komunitate-medikuntza: horren garapena sustatu eta bultzatzea.

- Integrazio asistentziala: zainketa sanitarioak antolatzea, pazienteen emaitzak hobetzea helburutzat hartuta, bereziki prozesu asistentzialak integratuz, Euskadiko Arreta Integratuaren Planean jasotakoaren arabera.

- Suizidioa prebenitzeko estrategiak.

- Euskadiko Onkologia Planeko ekintzak.

- Nahasmendu neurodegeneratiboak eta neuromuskularrak.

- Generoa eta osasuna: generoaren eta osasunaren arloko prestakuntza integrala, zeinaren helburua baita zerbitzu sanitarioetako jardura asistentzian, plangintzan eta kudeaketan genero-ikuspegia xertatzea, arlo horretako ikerketa-proiektuak egin eta ebaluatzea, ezagutza zientifikoa handituko duten osasunaren eta generoaren arloko ikerketak proposatu eta garatzea, eta arlo sanitarioan genero-indarkeriako kasuak detektatu eta tratatzea.

Atzerriko unibertsitate-ikastegietan emandako graduondoko ikastaroetara joatea eta prestakuntza-egonaldia egitea, epe mugatu batez, atzerriko zentro sanitarioetan edo ikerketa sanitarioko zentroetan, osasun-zientziekin lotutako arlo guztietan ezagutzak eta trebetasunak areagotzera bideratutako prestakuntza-programa indibidualizatuak garatzeko; horretara begira egongo da prestakuntza bultzatzeko beste ildo bat.

3.4.1.2.- Zer lortu nahi den

Osasun Sailaren helburuetariko bat da talde sanitarioaren prestakuntza handiagoaren bidez zerbitzu sanitarioen kalitatearen hobekuntza sustatzea. Horregatik, Osasun Sailak epe ertain eta luzerako estrategia bat planteatu du Euskal Sistema Sanitarioko langileek duten gaitasuna areagotu dezaten praktika profesionalean.

3.4.1.3.- Ekintza-plana

Osasuneko sailburuaren dagokion agindua onartzea, 2021eko ekitaldirako.

3.4.1.4.- Finantziazioa

2021ean, helburu horretarako 108.010 euro baliatuko dira guztira: 64.806 €, 2021eko ekitaldiari dagozkio, eta 2022ko ekitaldiari, 43.204 €. Bere funtsekin finantzatuko du Osasun Sailak, aurrekontuen 4. kapituluaren kontura (gastu arrunten transferentziak eta diru-laguntzak)

3.4.1.5.- adierazleak

Atzerriko zentroetan prestakuntza-egonaldiak egiteko beken eta laguntzen kopurua (13).

Zenbat beka eta laguntza eman behar diren Estatuko zentroetan prestakuntza-jarduerak egiteko eta, hala, gaitasun aurreratuak inguratzeko (20).

Jasotako prestakuntza beraien lanposturako eraginkorra izan dela uste dutenen ehunekoa >(75)..

3.4.2.- Osasun-arloan irabazi asmorik gabe aritzen diren erakundeentzako laguntzak, dela erakunde modura osatzeko edo funtzionatzeko, dela etengabeko prestakuntza-jarduerak antola ditzaten osasuneko profesionalentzat.

3.4.2.1.- Helburuak

1. Antolakunde profesionalak, elkarteak eta erakunde zientifikoak sor edo manten daitezten bultzatzea, denak ere irabazi asmorik gabekoak, osasunaren arloan lan egiten dutenak eta egoitza ofiziala Euskal Autonomia Erkidegoan dutenak, osasuneko profesionalei prestakuntza eta eguneratze teknikoak eskaini diezaieten edo osasun-ikerikuntza susta dezaten, hartara gaixorik daudenen osasuna eta ongizatea hobetzeko.

2. Etengabeko prestakuntzarako bidea zabalik edukitzea, bitarteko egokia baita kualifikazio optimoa bermatzeko eta osasuneko langileen garapena indartzeko. Asmoa da Euskal Autonomia Erkidegoan etengabeko prestakuntza-jarduerak sustatzea. Jarduera egiaztatuak izango dira (Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako Euskal Kontseiluak egiaztatuak, edo beste autonomia-erkidego batzuetako erakunde baliokideek bestela), osasun-arloko langileei zuzenduak, Osasun Sailak legegintzaldi honetarako dituen ildo estrategikoen barruan kokatuak, eta, bereziki, alderdi hauei buruzkoak:

– Kudeaketa sanitarioa: kostu sanitarioen eta ospitale-kostuen kudeaketa eta kontrola; marketina; giza baliabideak; zerbitzu sanitarioen produktibitatea eta plangintza; kalitatearen kontrola; arreta soziosanitarioa; langile sanitarioen arriskuak; erakunde sanitario motak; kudeaketa sanitarioko politikak; plangintza estrategikoa; zerbitzu sanitarioen ikuskapena, eta kudeaketaren tratamendu informatikoa.

- Osasun publikoa: tresna metodologikoak (estatistika eta epidemiologia); plangintza eta ebaluazioa (beharra, eskaintza eta eskaria, efikazia, eraginkortasuna, efizientzia, ekitatea, adierazleak; gaixotasunak prebenitzeko eta horietatik babesteko estrategiak; osasuna sustatzea).

– Zainketa aringarriak: alderdi kulturalak, sanitarioak, psikosozialak, legezkoak eta etikoak; zainketa aringarrietako zerbitzuen kudeaketa; ikerketa, sintomen kontrola eta erabakiak hartzea.

– Familia- eta komunitate- medikuntza: horren garapena sustatu eta bultzatzea.

– Integrazio asistentziala: zainketa sanitarioak antolatzea, pazienteen emaitzak hobetzea helburutzat hartuta, bereziki prozesu asistentzialak integratuz, Euskadiko Arreta Integratuaren Planean jasotakoaren arabera.

- Suizidioa Prebenitzeko Estrategia.

- Euskadiko Onkologia Plana.
- Generoa eta osasuna.
- Kalitate hobea erdiestea osasun-prestakuntza espezializaturako sisteman. Irakasleentzako prestakuntza.

3.4.2.2.- Zer lortu nahi den

Biztanleriari osasun-arreta egokia ematea faktore askoren mende dago; horien artean, osasun-arloko langileen trebakuntza nabarmentzen da, eta horretarako kalitatezko prestakuntza-prozesua behar da.

Osasungintzako profesionalen eskubidetzat eta betebehartzat hartzen den Etengabeko Prestakuntza (44/2003 Legea, azaroaren 21ekoa, Osasungintzako Lanbideen Antolamenduari buruzkoa), gaur egun ohiko eta beharrezko jardueratzat hartzen dute osasunaren, hezkuntzaren, elkarleen eta korporazioaren arloetako erakundeek eta profesionalak berek. Osasun- eta gaixotasun-prozesuen ezagutzak, prozesu horiek baldintzatzen dituzten alderdiak, eredu epidemiologikoak eta erabiltzen diren teknologien berrikuntzak ez ezik, osasun-sistemen eta, oro har, gizarte-sistemen antolaketa ere etengabe aldatzen ari denez, profesionalaren kompetentziak betebehar etiko gisa mantendu eta etengabe hobetu behar dira, profesional horren esku dauden herritarrei ahalik eta arreta hoberena eskaintzeko. Etengabeko prestakuntza oso tresna ahalsua da helburu hori lortzeko.

Halaber, prestakuntza-jarduerak antolatuz, profesionalen arteko komunikazioa errazten duten topaguneak sustatzen dira, eta, hala, ezagutzaren hedapena kudeatzen da, bilera zientifikoak, ikastaroak, jardunaldiak eta abar antolatuta.

Bestalde, Osasun Sailaren ustez, gaixotasunak dituzten pertsonen osasuna eta ongizatea hobetzeko, onuragarria eta ezinbestekoa da laguntzea osasunaren esparruan diharduten profesionalen elkargoak, irabazi-asmorik gabeko elkarteak eta egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten osasun-espezialitateetako irabazi-asmorik gabeko erakunde zientifikoak, osasun arloko profesionali prestakuntza eman diezaieten, beren ezagutza teknikoa eguneratu edo osasun-ikerketara bultzatu dezaten.

3.4.2.3.- Ekintza-plana

Osasuneko sailburuaren dagokion agindua onartzea, 2021eko ekitaldirako.

3.4.2.4.- Finantzaketa

2021ean 79.409 euro baliatuko dira helburu horiek lortze aldera. Bere funtsekin finantzatuko du Osasun Sailak, aurrekontuen 4. kapituluaren kontura (gastu arrunten transferentziak eta diru-laguntzak)

3.4.2.5.- Adierazleak

Zenbat laguntza eman diren prestakuntza-jarduerak antolatzeko (32).

Guztira zenbat eskola-ordu eman diren diruz lagundutako prestakuntza-jardueretan (>559).

Diruz lagundutako prestakuntza zenbat lanbidetan eman den. (> 8).

Zenbat laguntza eman diren erakundeen eraketa edo funtzionamendurako (7).

Diruz lagundutako jardueren artetik, helburuetan ehuneko zenbatek daukaten bat-etortze handia edo ertaina Osasun Sailaren lehentasunezko arloekiko (>80).

3. 4. 3.- Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzaren izendun diru-laguntzak

3.4.3.1- Diru-laguntza izenduna Euskadiko Sendagileek Kontseiluarentzat, EAEko MGAIPa finantzatzeko.

3.4.3.1.1.- Helburuak

EAEko Mediku Gaixoaren Arreta Integraleko Programari laguntzea.

3.4.3.1.2.- Zer lortu nahi den

Ahalik eta mediku gaixo gehiagori laguntzea.

Gaixorik dauden medikoek behar duten laguntza espezializaturako jaso dezaten bermatzea.

Profesionalak diren aldetik haien birgaitzea bultzatzea.

Medikuntza herritarren osasunerako ahalik eta baldintza hoberenetan gauzatu dadila bermatzea.

3.4.4.1.3- Ekintza-plana.

Osasuneko sailburuaren dagokion agindua onartzea, 2021eko ekitaldirako.

3.4.3.1.4.- Finantziazioa

2021ean 76.592 euro baliatuko dira helburu horiek lortze aldera. Bere funtsekin finantzatuko du Osasun Sailak, aurrekontuen 4. kapituluaren kontura (gastu arrunten transferentziak eta diru-laguntzak).

3.4.3.1.5.-Adierazleak

Diru-laguntzan aurreikusitako jarduerak egitea.

3.4.3.2- EAEko Erizaintza Elkargoentzako diru-laguntza, Erizaintzako Laguntza Integraleko Plana abian jartzeko.

3.4.3.2.1.- Helburuak

EAEko Erizaintza Elkargoentzako diru-laguntza, Erizaintzako Laguntza Integraleko Plana abian jartzeko.

3.4.3.2.2.- Zer lortu nahi den

Gaixorik dauden ahalik eta erizain gehiagori laguntzea.

Gaixorik dauden erizainek behar duten laguntza espezializatua jaso dezaten bermatzea.

Profesionalak diren aldetik haien birgaitzea bultzatzea.

Medikuntza herritarren osasunerako ahalik eta baldintza hoberenetan gauzatu dadila bermatzea.

3.4.3.2.3- Ekintza.-plana

Osasuneko sailburuaren dagokion agindua onartzea, 2021eko ekitaldirako.

3.2.3.2.4.-Finantziazioa

2021ean, 20.000 euro baliatuko dira, helburu horiek lortze aldera. Bere funtsekin finantzatuko du, Osasun Sailaren aurrekontuen 4. kapituluaren kontura (gastu arrunten transferentziak eta diru-laguntzak)

3.4.3.2.5.-Adierazleak

Diru-laguntzan aurreikusitako jarduerak egitea.

3.4.3.3- Euskal Herriko Unibertsitateari diru-laguntza izenduna ematea, Familia eta Komunitate Medikuntzako Gela bat garatzeko.

3.4.3.3.1.- Helburuak

UPV/EHUko Familia eta Komunitate Medikuntzako Gelaren garapenean eta jardueretan laguntzea.

3.4.3.3.2.- Zer lortu nahi den

Hezkuntza jarduerak, ikerkuntza jarduerak eta zenbait gai ikertzeko jardueraren emaitzen transferentzia; gaiok hauexek dira: lehen mailako osasun erreta, erkidegoko arreta, osasun publikoa eta lehen mailako bestelako esparru interesgarriak.

3.4.3.2.3- Ekintza-plana

Sailburuaren agindu baten bidez UPV/EHUri diru-laguntza ematea, UPV/EHUn Familia eta Komunitate Medikuntzako Gela bat garatzeko.

3.4.3.3.4.- Finantziazioa

2021ean guztira 60.000 euro baliatuko dira helburu horiek lortze aldera. Bere funtsekin finantzatuko du Osasun Sailak, aurrekontuen 4. kapituluaren kontura (gastu arrunten transferentziak eta diru-laguntzak)

3.4.3.3.5.- Adierazleak

Hezkuntza jarduerak, ikerkuntza jarduerak eta zenbait gai ikertzeko jardueraren emaitzen transferentzia; gaiok hauexek dira: lehen mailako osasun erreta, erkidegoko arreta, familia- eta erkidego-medikuntza eta lehen mailako bestelako esparru interesgarri batzuk.(3).

II. eranskina: Ardatz estrategikoak eta diru-laguntzen lerroak:

Helburuak, ekintzak eta adierazleak

1. helburu estrategikoa: Osasuna sustatzea eta gaixotasunak prebenitzea.

Organo kudeatzailea: Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza

Programa: 4113 Osasun Publikoa

	2021	2022	2023	2024
1. ekintza GIB/HIESaren, Sexu Transmisiozko Infekzioen eta C hepatitisaren esparrurako diru-laguntzak. Adierazlea Diruz lagundu beharreko erakunde kopurua: 16	300.000			
2. ekintza Tokiko esparruan osasuna sustatzeko diru-laguntzak. Adierazlea Diruz lagundu beharreko proiektuen kopurua 45	175.000	75.000		
3. ekintza Pertsona gaixoen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzera bideratzen dituzten irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeei laguntzak. Adierazlea Diruz lagundu beharreko erakunde kopurua: 16	210.000	90.000		
4. ekintza Ikasleriaren artean mugikortasun aktiboa sustatzera bideratutako ekintzen garapenerako laguntzak (mugikortasun aktiboa). Adierazlea Diruz lagundu beharreko proiektuen kopurua 35	95.200	40.800		
5. ekintza Preskribatutako tratamendu medikoak ez uzteko laguntzak, 2021eko ekitaldikoak. Adierazlea Eskabide-kopurua 118.360	2.467.512,40	3.571.685,66		

2. helburu estrategikoa: Adikzioak prebenitzea eta artatzea, eta arriskuak eta kalteak gutxitzea.

Organo kudeatzailea: Adikzioak

Programa: 4116 Adikzioak

	2021	2022	2023	2024
<p>1. ekintza</p> <p>Ekipo teknikoak sortzeko eta mantentzeko; adikzioen prebentzio komunitarioko programak garatzeko; prebentziorako eta arrisku eta kalteen murrizketarako proiektuak egiteko, eta ohitura osasungarriak sustatzeko diru laguntzak.</p> <p>1. adierazlea.- Ekipo teknikoak sortzeko eta mantentzeko lerroa:</p> <p>- Diruz lagundutako toki-entitateen kopurua: 36.</p> <p>2. adierazlea.- Adikzioen prebentzio komunitarioko programak garatzeko eta ohitura osasungarriak sustatzeko lerroa.</p> <p>- Diruz lagundutako toki-entitateen kopurua: 39.</p> <p>3. adierazlea.- Arrisku eta kalteak prebenitzeko eta murrizteko proiektuak egiteko eta ohitura osasungarriak sustatzeko lerroa.</p> <p>Diruz lagundutako irabazi-asmorik gabeko erakundeen kopurua: 40.</p> <p>- Diruz lagundutako proiektuen kopurua 75.</p>	2.854.400			
<p>2. ekintza</p> <p>Gizakia fundazio zibilarentzako diru-laguntza, "Andén 1" izeneko adikzioak artatzeko zentro soziosanitarioari eusteko.</p> <p>1. adierazlea Artatutako pertsonen kopurua</p> <p>2. adierazlea Zentroaren jarduera-lerroetan egindako esku-hartzeen kopurua:</p>	166.101			
<p>3. ekintza</p> <p>Bizkaiko Hiesaren aurkako Herritarren Batzordearentzako diru-laguntza, kalteak gutxitzeko programak kudeatzeko droga-mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroan.</p> <p>1. adierazlea Artatutako pertsonen kopurua</p> <p>2. adierazlea Zentroaren jarduera-lerroetan egindako esku-hartzeen kopurua:</p>	76.000			
<p>4. ekintza</p> <p>Bilboko Caritasentzako diru-laguntza, larrialdiko eta gaueko harrerako Hontza zentroari eusteko</p> <p>1. adierazlea Artatutako pertsonen kopurua</p> <p>2. adierazlea Zentroaren jarduera-lerroetan egindako esku-hartzeen kopurua:</p>	146.130			

2. helburu estrategikoa: Adikzioak prebenitzea eta artatzea, eta arriskuak eta kalteak gutxitzea.

Organo kudeatzailea: Adikzioak

Programa: 4116 Adikzioak

	2021	2022	2023	2024
<p>5. ekintza Deustuko Unibertsitatearentzako diru-laguntza, drogomendekotasunaren inguruko prestakuntza-eta ikerkuntza-jarduerak egin ditzan.</p> <p>1. adierazlea Artatutako pertsonen kopurua 2. adierazlea Egin beharreko jardunaldien kopurua, dokumentuen eta argitalpenen zerrenda</p>	73.200			
<p>6. ekintza Eguía-Careaga fundazioarentzako diru-laguntza, drogamenpekotasunen aurka egiteko jarduerak egiteko.</p> <p>1. adierazlea Erregistratu beharreko erreferentzia dokumentalen kopurua 2. adierazlea Artatu beharreko kontsulten kopurua 3. adierazlea Argitaratu beharreko dokumentuen eta txostenen kopurua</p>	100.000			

3. helburu estrategikoa: Ikertzea eta berritzea
 Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritza.
 Programa: 41141 Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioa

	2021	2022	2023	2024
1. ekintza Osasun-arloko ikerketa- eta garapen- jarduera eta proiektuetarako laguntzak. 1. adierazlea Sortzen ari diren taldeetan zenbat I+G proiektu: 5 2. adierazlea Osasuneko zenbat I+G proiektu integratu: 2 3. adierazlea Zenbat I+G proiektu biomediko: 5 4. adierazlea Osasun-zerbitzuetan zenbat ikerketa-proiektu: 5 5. adierazlea RIS3 strategiaren barruan zenbat proiektu eta zenbat lankidetzeta- eta garapen-ekintza: 15 6. adierazlea I+G proiektuetako ehuneko zenbatean ikertzaile nagusia emakumezkoa: % 45	100.000 2.500.000	1.070.000	1.070.000	910.000
2. ekintza Kronikagune irabazteko asmorik gabeko elkartearantzako diru-laguntza (Kronikotasunari buruzko Ikerketa Institutua). 1. adierazlea Plan Estrategikoan ezarritako helburuen betetze-maila 2. adierazlea Europako zenbat proiektu koordinatu behar diren: 3	575.818			
3. ekintza Bioaraba Osasun Ikerketako Institutuari laguntza ematea (Bioaraba elkarreak ez du irabazi-asmorik). 4114. programa. 1. adierazlea Plan Estrategikoan ezarritako helburuen betetze-maila	423.800			
4. ekintza Biocruces Bizkaia Osasun Ikerketako Institutuari laguntza ematea (irabazi-asmorik gabeko elkarreak da). 4114. programa. 1. adierazlea Plan Estrategikoan ezarritako helburuen betetze-maila	1.630.118			
5. ekintza Biodonostia Institutua irabazi-asmorik gabeko elkarerako laguntza. 4114. programa. 1. adierazlea Plan Estrategikoan ezarritako helburuen betetze-maila	526.677			
6. ekintza Bioaraba Osasun Ikerketako Institutuari laguntza ematea (Bioaraba elkarreak ez du irabazi-asmorik). 5414 programa (Medtech ekimena) 1. adierazlea Eskaera-memorian jasotako adierazleak betetzea.	320.000			

3. helburu estrategikoa: Ikertzea eta berritzea
 Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritza.
 Programa: 41141 Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioa

	2021	2022	2023	2024
7. ekintza Biocruces Bizkaia Osasun Ikerketako Institutuari laguntza ematea (irabazi-asmorik gabeko elkartea da). 5414 programa (Medtech ekimena) 1. adierazlea Eskaera-memorian jasotako adierazleak betetzea.	780.000			
8. ekintza Biodonostia Institutua irabazi-asmorik gabeko elkarterako laguntza. 5414 Programa (Medtech ekimena) 1. adierazlea Eskaera-memorian jasotako adierazleak betetzea.	500.000			
9. ekintza BIOEF Berrikuntza eta Ikerkuntza Sanitariorako Euskal Fundazioak COVID-19 ikertzeko proiektuetarako diru-laguntza. Adierazlea Diruz lagundu beharreko proiektuen kopurua: 5				

4. helburu estrategikoa: Profesionalak

Organo kudeatzailea: Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza.

Programa: 41142 Plangintza, Antolamendua eta Ebaluazio Sanitarioa.

	2021	2022	2023	2024
<p>1. ekintza EAEko osasun-arloko profesionalak prestatzeko banakako laguntzak eta beka.</p> <p>1. adierazlea Atzerriko zentroetan egonaldiak eta ikastaroak egiteko beken eta laguntzen kopurua: 13</p> <p>2. adierazlea Konpetentzia aurreratuak hartzea helburu duten prestakuntza jarduerak Estatuko zentroetan egiteko beken eta laguntzen kopurua: 20</p> <p>3. adierazlea Ehuneko zenbatek uste duen prestakuntza eraginkorra izan dela bere lanposturako: >75%</p>	64.806	43.204		
<p>2. ekintza Osasun-arloan irabazi asmorik gabe aritzen diren erakundeentzako laguntzak, dela erakunde modura osatzeko edo funtzionatzeko, dela etengabeko prestakuntza-jarduerak antola ditzaten osasuneko profesionalentzat.</p> <p>1. adierazlea Zenbat laguntza eman diren prestakuntza-jarduerak antolatzeko: 32</p> <p>2. adierazlea Diru-laguntza jasotzen duten prestakuntza-jardueretan emandako orduen guztizko kopurua. >559</p> <p>3. adierazlea Diruz lagundutako prestakuntza zenbat langileri eman zaien: >8</p> <p>4. adierazlea Zenbat laguntza eman diren entitateen eraketarako edo funtzionamendurako: 7</p> <p>5. adierazlea Osasun Sailaren lehentasunezko arloekiko kointzidentzia, alegia, diruz lagundutako jardueren artetik, ehuneko zenbatean den kointzidentzia hori handia edo ertaina. >80</p>	79.409			
<p>3. ekintza Euskal Autonomia Erkidegoko Medikuen Kontseiluarentzako diru-laguntza, PAIME finantzatzeko.</p> <p>Adierazlea Diru-laguntzan aurreikusitako jarduerak egitea</p>	76.592			
<p>4. ekintza EAEko Erizaintza Elkargoentzako diru-laguntza, Erizaintzako laguntza Integraleko Plana abian jartzeko.</p> <p>Adierazlea Diru-laguntzan aurreikusitako jarduerak egitea</p>	20.000			
<p>5. ekintza Euskal Herriko Unibertsitateari diru-laguntza ematea Familia eta Komunitate Medikuntzako Gela bat garatzeko.</p> <p>Adierazlea Diru-laguntzan aurreikusitako jarduerak egitea: 3</p>	60.000			

III. eranskina: Ardatz estrategikoak eta diru-laguntzen lerroak

Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketa-ehunekoa finantzaketa publikoaren globalarekiko.

	2021		2022		2023		2024	
	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%
1. helburu estrategikoa: Osasuna sustatzea eta gaixotasunak prebenitzea. Organo kudeatzailea: Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza Programa: 4113 Osasun Publikoa								
4. kapitulua	3.247.712,40	100	3.777.485,66	100				
Guztira	3.247.712,40	100	3.777.485,66	100				
2. helburu estrategikoa: Adikzioak prebenitzea eta artatzea, eta arriskuak eta kalteak gutxitzea. Organo kudeatzailea: Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza Programa: 4116 Adikzioak								
4. kapitulua	3.415.831	100						
Guztira	3.415.831	100						
3. helburu estrategikoa: Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioa Organo kudeatzailea: Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritza Programa: 41141 Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioa								
4. kapitulua	100.000	100	1.070.000	100	1.070.000	100	910.000	100
Guztira	100.000	100	1.070.000	100	1.070.000	100	910.000	100
Programa: 54140 Berrikuntza-funtsa								
4. kapitulua	2.500.000	100						
Guztira	2.500.000	100						

	2021		2022		2023		2024	
	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatek oa	%	Zenbatek oa	%
4. helburu estrategikoa: Profesionalak Organo kudeatzailea: Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza Programa: 41142 Plangintza, Antolamendua eta Ebaluazio Sanitarioa.	300.807	100	43.204	100				
4. kapitulua	300.807	100	43.204	100				
Guztira								

IV. eranskina: Ardatz estrategikoak eta diru-laguntzen lerroak

Diru-laguntzen helburu den edo diren sektorea edo sektoreak eta diru-laguntzak emateko prozedura.

<p>1. helburu estrategikoa: Osasuna sustatzea eta gaixotasunak prebenitzea. Organo kudeatzailea: Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza Programa: 4113 Osasun Publikoa Sektore hartzaileak: Udalerriak, mankomunitateak eta gainerako tokiko erakundeak, tokiko organismo autonomoak, tokiko merkataritza sozietateak, elkarteak eta kooperatibak Emateko prozedura: Lehiaketa. Izendunak Instrumentalizatzeko modua: Jendaurreko deialdia eta Agindua</p>
<p>2. helburu estrategikoa: Adikzioak prebenitzea eta gai horren gaineko arreta ematea Organo kudeatzailea: Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza Programa: 4116 Adikzioak Sektore hartzaileak: Tokiko erakundeak eta irabazi-asmorik gabeko elkarteak. Emateko prozedura: Lehiaketa. Izendunak Instrumentalizatzeko modua: Jendaurreko deialdia eta Agindua (Hitzarmena)</p>
<p>3. helburu estrategikoa: Ikertzea eta berritzea Organo kudeatzailea: Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritza Programa: 41141 Ikerketa eta Berrikuntza Sanitaria eta 54140 Berrikuntza funtsa Sektore hartzaileak: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sare barruko agenteak. Emateko prozedura: Lehiaketa. Izendunak Instrumentalizatzeko modua: Jendaurreko deialdia eta Agindua</p>
<p>4. helburu estrategikoa: Profesionalak Organo kudeatzailea: Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza Programa: 41142 Plangintza, Antolamendua eta Ebaluazio Sanitaria. Sektore hartzaileak: Pertsonak, irabazi-asmorik gabeko elkarteak, zientzia erakundeak eta elkargo profesionalak Emateko prozedura: Lehiaketa. Izendunak Instrumentalizatzeko modua: Jendaurreko deialdia eta Agindua</p>